



STOP WERT



LOMCE

ESKOLA PUBLIKOAREN FUNTSAREN KONTRARREFORMA

PP inposatu nahian ari den LOMCE (Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Legea) -ustez eskola porrotaren eskandaluzko tasak hobetzeko-izaeraneoliberal eta uniformatzailea duen hezkuntza kontrarreforma ideologikoa da, eta bazter uzten ditu eskuduntza eremuak eta estatuko gizarte eta hezkuntza errealitateak.

1 Erreforma berzentralizatzailea...

Hezkuntza sistemak beren erabakien arabera antolatzeko herrien askatasuna ez du onartzen eta curriculumetan eskuduntza zentralak berreskuratzen ditu: Gobernu zentralak finkatuko du enbor-ikasgaien edukien gutxienezkoa, eta gutxienez eskola ordutegiaren %50 hartuko dute. Lurrealdean ezaugarriak kontutan hartu barik errebalida komunak inposatzen ditu. Espainolizatu eta uniformizatu nahi du, eta berezko hizkuntzak dituzten komunitateen murgiltze programak arrisku larrian ipintzen ditu.

2 Kontrarreforma antidemokratikoa...

Garatze prozesuan hezkuntza komunitateak parte hartu barik, eta sindikatuek, familiek edo ikasleek proposatutako emendekin kritikoa kontutan hartu gabe inposatu nahi dute. Zentroen kudeaketa demokratikoa eta partehartzailea desagertu egiten da: zuzendaria (beti gizonezko: el director) gerente eta langileen nagusi bihurtzen du, enpresetan bezala, alderdi guztietatik. Nor hautatu, praktikan, administrazioaren esku geratzen da, eta Eskola Kontseiluen eskuduntza gehienak desagertu egiten dira.

3 Publikoaren kalterako, irakaskuntza pribatua sustatzen duen kontrarreforma

“Eskaera soziala” egote hutsa nahikotzat jota ikastetxe pribatuetan gelak ituntzeko, itunak berritzatzeko epea 4urtetik 6 urtera pasatuta, edo plaza publikoak (orain bakarrik “plazak” izango dira) eskaintzeko administrazioak duen derrigortasuna kenduta, irakaskuntza pribatua sustatzen ari da. Aldi berean, hezkuntza publikoan inbertsioak murriztea justifikatu nahi dute, material eta giza-baliabideak gutxitzea; jakinda, horrek guztiak kaleratzeak, lanaren prekarizazioa eta ikasleen masifikazioa dakartzala, eta, ondorioz, kalitatea galtzea.

4 Kontrarreforma merkantilista

Hezkuntza sistema enpresen zerbitzuan ipintzen du eta ikasleen osoko formazioari uko egiten dio, soilik haien enpleagarritasuna ren mesederako. Lanbide Heziketan formazio bikoitza edo duala ezarrita, batetik enpresei eskulan merkea eskaintzen die, eta bestetik, ikasleen formazioaren kalterako izango da; izan ere etapa honetako, ikasleen egonaldiak enpresetan ikastorduen %70era arte izan daitezke, eta heziketa zikloetako eskola orduen zati handi bat kentzen die. Horren guztiaren ondorio izango da irakasle-langile askoren lanpostuak desagertzea.

5 Kontrarreforma baztertzalea ...

Klasearen arabera diskriminatzen du, eta langileen seme-alabei oztipoen lasterketa bat inposatzen die. Aniztasunak ez du lekurik eta aurrez ezarritako profila “ematen” ez duten ikasleak eskola sistematik kanpora bideratzeko ibilbideak sortzen dira. Bide beretik eta helburu berberarekin, ikasleen etorkizuna –eskolan zein lanean– erabakiko dituzten etengabeko errebalidak ezartzen dituzte. Gainera, irakaskuntza sexuaren arabera antolatzen duten ikastetxeak finantzatzen jarraituko du administrazioak.

6 Curriculumak guztiz aldatzen duen kontrarreforma

Aurreproiektuaren beste aldaketa proposamen batek, hainbat mailatako ikasgaiak eragiten die, eta, beraz, lanpostuen zerrendetan eragiten du. Ikasgaiak murrizteak esan nahi du ikasleek aukera askoz gutxiago izango dutela DBHn eta Batxilergoko ia maila guztietan, eta aukerazko eta modalitateko ikasgaiak ezabatzeak izugarritzko birmoldaketa ekarriko du.



7 Laikotasunaren eta baloreen hezkuntzaren kontrako erreforma

Erligioa espediente akademikotik eta eskola ordutegitik kendu beharrean, Estatua Gotzainen eskaeren zerbitzuan jartzen da eta erlijioa aukeratzen ez dutenei haren ordezko sendo bat irakasteko derrigortasuna ezartzen du. Gainera, Hiritartasunerako Heziketa kentzea lortu dute, Elizarentzat gai polemikoak mahaigaineratzen zituelako.

8 Desberdintasunak sustatzen dituen kontrarreforma

Aurrerantzean, Eskola ez da izango gizartearen egituratzearen eta desberdintasunak orekatzearen aldeko motorra. Ikasleen emaitzetan oinarrituriko ikastetxeen rankinaren murrizketan eta diktadurapean geratuko da. Emaitza horiek ondorio zuzenak izango dituzte bai eskolak jasoko duen diruetan, bai irakasleen lan baldintzetan. Sistema honek txirotasunera eramango ditu arazoak dauzkaten ikasleak biltzen dituzten eskolak. Aldi berean, ikastetxe bikainak sustatuko dira, ikasleak gaitasunen edo maila sozio-ekonomikoaren arabera aukeratuta.

9 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahazten duen kontrarreforma

80ko hamarkadan indarra hartu zuten hezkidetzak eta baloreen hezkuntza –LOGSE-k ere lagundu zuen zehar lerro moduan proposatuta–, eta horiekin lotutako proiektu guztiak albo batera uzten ditu. Hala bada, LOE-k gutxi aprobetxatu zuen, eta LOMCE-k errotik desagerrarazten du.

10 Irakasleen lana gutxien duen kontrarreforma

Irakasleek ezingo diete titulu akademikorik eman ikasleei. Bigarren Hezkuntzako errebalidak ezinbesteko baldintza dira DBHko graduatu titulua eskuratzeko: hau da, bertan behera uzten dute irakasleek egindako lan osoa eta ebaluazio jarraitua, eta proba batzuk prestatu beharrik guztiz baldintzatuko du irakasleen lana. Proba horiek, non irakasleek ezingo duten aktiboki parte hartu, ohiko eskola egutegitik kanpo gauzatuko dira, eta, beraz, luzatu egiten da egutegia eskola zama haundituz.